



Nafarroa Bai

INDAR EZKERTIAR ETA AURRERAZALEEN, ABERTZALE ETA EUSKALTZALEEN ELKARLANERAKO OINARRI POLITIKOAK NA-BAI KOALIZIOAN 2007rako

=====

1.-Sarrera:

Agiri honek Nafarroako indar ezkertiar, aurrerazale, abertzale eta euskaltzaleen arteko konpromiso politikoak definitzen ditu 2007ko maiatzean egingen diren foru eta udal hauteskunderi begira. Agiria pertsona independenteei eta gizarte sektoreei irekia dago. Azken buruan, indar politiko eta sozialen arteko akordio politiko hau elkarlanaren oinarri eta funtsa da aipatu hauteskunde horietarako.

Agiri honetan islatuak gelditu dira alderdien NA-BAI koalizioak lortuko dituen hautetsien konpromiso politiko eraginkorrak. Aldi berean, agiri hau berau da, aurretik eginak dauden agiriekin batera, nafar herritarrei egin diegun eskaintza definitzen duen lanabes ideologikoa. Era berean, funtsezko tresna da beste talde politiko batzuekiko akordioak bilatzerakoan.

2.-Egoera politikoaren azterketa:

2.1 Baketzea eta normalkuntza politikoa: Gaur egun, une historikoan gaude Euskal Herrian. Izan ere, bakea eta normalkuntza politikoa era esperantzagarrian agertzen dira, eta gizarte osoaren eskura daude. Funtsezko gauza horrek aldaketa eragin dezake agertokian, bai eta planteamendu politikoetan ere. Horrenbestez, horrek guztiak behartzen gaitu –indar abertzale eta euskaltzaleak garen aldetik– aipatu bi helburuak lortzeko dugun lanerako konpromisoa gure gain hartzera.

Alde horretatik, uste osoa dugu Nafarroaren inplikazioaz. Hori dela eta, NA-BAIko indarrok konpromisoa gure gain hartzen dugu, Nafarroako indar politiko guztien parte-hartzea eta elkarrizketa bake prozesuan bultzatzeko.

Baketzearen eta normalkuntza politikoaren faktore nahitaezkoak dira indarkeria politikoaren desagertzea, giza eskubide guztien errespetua eta proiektu politiko demokratiko guztien parte-hartze librea.

NA-BAIko taldeok Euskal Herriko autodeterminazio eskubidea defendatzen dugu, Nafarroako erabaki esparruaren onarpenera, eta nafar herritarrei dagokien



Nafarroa Bai

eskubidea gainerako euskal lurraldeekiko harreman instituzionalaren modua aukeratzeko.

2.2 Ezkerreko aldaketa Nafarroan, soziala eta solidarioa: Gero eta ageriago dago aldaketa premia handiz beharrezkoa dela Nafarroan, bai politikari bai arlo sozialari begira. Izan ere, funtsezko zerbitzu publikoak hondatzen ari dira, eta gero eta gehiago pribatizatzen; iluntasuna nagusi da kudeaketa publikoan; edo horra hor kudeaketarako etengabe erakusten ari diren ezintasuna. Azken finean, hutsune larriz betetako kudeaketa da, eta bereziki sektore ahulenak dira egoera txar hori jasaten dutenak. Hori horrela izanik, indar ezkertiar eta aurrerazale guztien elkarlana behar-beharrezkoa da elkartasunean oinarritutako gizarte-eredu bidezkoagoa lortzeko, administrazio publiko guztiek zerbitzu publikoei lehentasuna emanen dieten gizarte-eredua erdiesteko, alegia.

2.3 Hizkuntza politika: atzerapauso larri eta arriskutsuak gertatu dira herritarren hizkuntza eskubideen aitortzearen; Europako goi erakundeek ere gaitzetsi dituzten atzerapausoak (esaterako, Europako Kontseiluak). UPNk eta CDNk Parlamentuan duten gehiengoak, ordea, hori guztia nahita eta lotsagabeki saihesten du, PSNk lagundurik. Euskarari buruzko politika atzerakoi horrek euskaldunon eskubideak (bai indibidualak bai kolektiboak) urratzeaz gain, nafar herritar guztionak ere urratzen ditu.

Egun indarrean dagoen Vasconcearen Legeak, bai eta ondotik atera diren foru dekretuek ere, nafar herritarren hizkuntza eskubideak esleitzen dituzte lurraldearen arabera arlo guztietan: administrazio publikoak, hezkuntza, komunikabideak, hizkuntza paisaia, etab... eta hori onartezina da. Egoera bidegabe hori ikusita, herritarrak baztertuko ez dituen Euskararen Legea behar da, gure hizkuntza herritar guztientzako ofiziala eginen duen Legea, bere dimentsio guztietan eta foru lurralde osoan.

2.4 Jokabide demokratikoa: Erakundeek murrizketak ezarri dituzte funtsezko balioetan (aniztasuna, demokrazia, gizarte parte-hartzea, udal autonomia...) eta, bestalde, abertzaletasuna erabaki esparruetatik eta erakundeetatik etengabe baztertu izan dute. Bada, murrizketa horien ondorioz gertaturiko atzerapausoak oso esanguratsuak izan dira. Era horretako jarrerak ere sindikatuen (ELA eta LAB etengabe baztertu dituzte) eta sinboloen esparruan (indarrean dagoen Sinboloen Legeak ikurrina Nafarroako udaletan egotea eragozten du) gertatzen dira. Bestalde, oraindik indarrean dagoen Alderdien Legearen (bidegabea eta kritikatu) ondorioz, Batasuna legez kanpo ezarri dute, eta bere boto-emaileak adierazpen instituzionalik gabe utzi dituzte. Bada, hori guztia da demokrazian gertatu den atzerapauso ageriko eta onartezinaren adierazpena.

Honax beste hutsune demokratiko nabarmen batzuk: herritarren ekimenari eta parte-hartzeari jarri zaizkien eragozpenak; Nafarroako kudeaketa publikoan agertu diren



Nafarroa Bai

irregulartasunak eta ustelkeriak, sistemaren kalitatearen hondagarri; etorkinen (nafar herritarren % 9) bazterkeria hauteskunde eskubideen aurrean....

2.5. Lurralde politika: Begi-bistakoa da zeinen era bidegabean tratatzen ari den nafar eskuindarren Foru Gobernua Nafarroako hainbat eskualde. Berezi larria da Mendialdeko eskualdeetarako ezarri duten politika, eskualde horien garapena eragozten baitute ekonomiaren eta gizartearen aldetik. Ondorioz, jendeak alde egiten du eta herriak husten ari dira. Era berean, kezka sortzen du gudan Nafarroako industriaren banaketa desorekatuak, bai eta zenbait tokitan ugaldutako industria kutsagarri-kutsagarriek ere.

2.6. Atzerapausoak zerbitzu publikoetan: Zerbitzuek herritarren ongizate sistemaren funtsezko aspektu guztiak estaltzen dituzte, eta botere publikoek haiek guztiak bermatu behar dituzte.

Hezkuntza publikoan hutsune nabarmenak daude azpiegituretan, langileetan eta, oro har, baliabideetan. Bestalde, uko egin diote ikastola guztiak legeztaezari. Horrekin batera aipatu behar da bitarte baterako langileen indizerik handiena dugula Estatu osoko irakasleen artean, eta 700etik gora ikasle barrakoietan. Bada, horrek guztiak erakusten du hezkuntza gainbehera datorrela Nafarroan. Horri gehitu behar zaio Oitiko 3. urte bitarteko hezkuntza zikloan dagoen hutsune larria. Izan ere, eskaintza urria da, tasak garestitu dira inolako justifikaziorik gabe, pribatizatzeak gora jo du eta ez dago behar adina bitartekorik.

Osasun publikoari dagokionez, sistema “mistoa” delakoaren ezarpenak (UPNk eta CDNk beren gobernu hitzarmenean iragarritakoa) zuzenean mesede egin dio Opus Dei-ren Klinika Unibertsitarioari eta, horrez gain, medikuntzaren kalitatea ere gelditu gabe hondatzen ari da zerbitzu publikoa den aldetik. Horren adibide argia da itxaron zerrenden gehikuntza eskandalagarria, bai eta medikuen desanimua ere. Gaur egun, Nafarroan, erakunde publikoek osasun arloan gastatzen dutena askoz ere gutxiago da Europako batez bestekoa baino, eta berezi adierazgarria da Oinarrizko Osasun Laguntzari dagokionean. Ez dugu ahaztu behar Oinarrizko Laguntzan osasun harrera guztien % 90 gertatzen direla. Gainera, horrek berekin dakar profesional askori kontratu prekarioak egitea. Garai bateko COFES zentroak orain ELZk dira, hau da, Emakumeari Laguntzeko Zentroak, eta murriztu egin zaizkie prebentzio eta hezkuntza arloko eginkizunak. Bestalde, Plan Onkologikoa geldiarazia dago.

Gizarte Ongizateari dagokionean, eskandaluek ere ezin dituzte estali Nafarroako Gobernuaren politikaren hutsune larriak. Esan behar da karitatearen balioan oinarritutako politika dela eta ez justizia sozialean. Aldi berean, zerbitzuak pribatizatzen ari dira (eta horrek murrizketa ekarri dio kalitateari) eta ez dago konpromiso sendorik kalitatezko gizarte zerbitzu publikoak garatzeko.

2.7. Gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasuna. Estatuko beste erkidego batzuetan berdintasunaren aldeko bost plan garatu diren bitartean, Nafarroan



Nafarroa Bai

orain helduko zaio lehenbizikoa abian jartzeari. Bestalde, bi urte pasatu badira ere, oraindik ez dago erregelamendua egina indarkeria sexistaren kontrako Lege integrala martxan jartzeko. Era berean, Nafarroan bada zer hobetu handia hainbat gaitan, esaterako: ez dago behar adina bitartekorik laneko eta familiako bizitza bateragarri egiteko, ezta antikontzeptibo guztiak doakoak izateko ere, etxeoandreen egoera eta beste afera aunitz ahaztu gabe.

2.8. Ingurumena: egungo Gobernuaren politika merkadotekniari lotua dago, hau da, ekintza positiboren bat, eta garapenkeriaren aldeko apustua iraunkortasun arloko irizpideak bazter utzita. Alde horretatik, adierazgarria da lurralde kohesioari dagokionez dagoen hutsune handia. Bestalde, ez da betetzen Kiotoko protokoloa. Aurre egin behar zaie UPN-CDNk ingurumenean egiten dituzten politikei, ez baitituzte ezertarako kontuan hartzen garapen iraunkorraren aldeko politikak ez ekonomian, ez industrian, ezta azpiegiturretan ere, eta ez dugu ahaztu behar delako politika horiek Europako Batasunak ezarriak direla Lisboako eta Nizako gailurretan (2000).

2.9. Nafarroako autogobernua: Amejoramenduak bi akats izan zituen bere sorreratik beretik: batetik, baztertu egin zituen negoziazio mahaitik Nafarroako abertzaletasuna eta euskaltzaletasuna; bestaldetik, nafar herritarrek ez dute berretsi. Horrela, gure autogobernua arautzen duen testuak era kaskarrean biltzen du Nafarroako eskumenen estatusa.

Gaur egun, Estatu mailako alderdi nagusiek (bereziki, UPN-PPk) ez dute borondaterik bi akats handi horiek zuzenduko dituen eta gure autogobernua handituko duen taxuzko erreformari ekiteko. Hori dela eta, egungo marko juridikoak hutsune larriak ditu Nafarroak bere eskumen politikoak gara ditzan. Ondorioz, ez dago aukerarik herritarrei zerbitzu hobea emateko, gure elkartasun mailak handitzeko, gizartearen eskariei egokiro erantzuteko, ezta abertzaleen eta euskaltzaleen proiektuak –oinarri demokratikoen gainean– Nafarroan garatzeko ere.

Horregatik, Amejoramendua aldatu beharra dago, Nafarroako aniztasuna eta sentsibilitateak aintzat hartzeko, eskumenen hobekuntza gertatzeko, gainerako euskal lurraldeekiko elkarlan esparruak sortzea xede duten bide guztiak irekitzeko, eta Nafarroak Europako Batasunean tokia izan dezan bermatzeko, berari dagozkion interesak defendatze aldera.

2.10. Sektore ahulenen aldeko lana. Nafarroa Bain konpromiso berezia hartu dugu gaur egun gure gizartean dauden sektore ahulena defendatzeko, bai eta haiei tratamendu berezia emateko ere: baliabiderik gabeko adindunak, inmigrazioa, sozialki baztertuak dauden pertsonak, pertsona minusbaliatuak, sektore prekarioak, arazo ekonomikoak dituzten emakumeak, etab.

2.11. Kausa aurrerazaleen defentsa. Hauek guztiak defendatuko ditugu: ekologia eta garapen iraunkorra; gizartea gero eta gehiago desmilitarizatzearen aldeko



Nafarroa Bai

politika harik eta faktore militarra desagerrarazi arte edo, gutxienez, huraxe zorrozki murriztu arte; Elizaren eta Estatuaren arteko bereizketa; errepublikazaletasuna; elkartasunezko sareak ezartzearen aldeko politika bai gure gizartean bai Hirugarren Munduko herrien alde. Eta hauek ere bai: kritika egiteko eskubidea, militarismoari arbuioa, desobedientzia zibilaren defentsa. Bestalde, elkarren arteko errespetuaren eta elkarriketaren balioak sustatuko ditugu identitateen arteko harremanetan, bai eta herrien arteko harremanetan ere. Gizon-emakume guztien funtsezko askatasunen defentsa. Era berean, aukera askatasunaren aldeko lana bizitza publikoaren eta pribatuaren esparru guztietan (sexu orientazioa, erlijioa, etab.) eta demokrazia sakontzearen aldekoa erakundeen eta gizartearen arteko harremanetan.

3.- NA-BAI koalizioaren helburuak 2007ari begira:

1) – Nafarroan aldaketa politikoa bultzatzea eskuina boteretik kanporatzeko. Gizartearen eskakizunak aintzat hartzea, izaera sozialeko edukiei eta ezkertiarren, aurrerazaleen, abertzaleen eta euskaltzaleen edukiei lehentasuna ematea.

2)- Euskal Herriko baketzea eta normalkuntza politikoa. Indarkeria desagertzea, aukera politiko guztiak legezkatzea. Nafar gizartearen aniztasuna aintzat hartzea eta, horren ondorioz, sentsibilitate eta aukera politiko guztiak errespetatzea.

3) – Nafarroako herritarren erabaki eskubidea aitortzea, eta proiektu politiko guztiak defendatu eta, hala bada, gauzatu ahal izatearen bermea, gehiengo demokratikoak halaxe erabakitzen badu. Gure eskubide historikoen arabera dagokigun autogobernuaren garapena lortzea, herritarren erabaki librearen bidez eguneratuak eta berretsiak, betiere erkidegoaren ongizatearen zerbitzuan.

4)- Nafar guztien hizkuntza eskubideen erabilera bermatzea eta, ondorioz, euskararen ofizialtasuna herritar guztientzat eta Nafarroako lurralde osoan lortzea.

5).- Demokrazian sakontzea eta herritar guztien eskubide zibil eta politikoak aitortzea. Giza eskubide guztiak (kolektiboak eta indibidualak) errespetatzeko bermea.



Nafarroa Bai

6)- Zerbitzu publikoen sistema indartzea, herritar guztientzako ondasun publiko duinak eskaintzeko. Justizia sozialaren lorpenean aurrera jotzea, gazte prekarioek, etorkinek, adindunek, emakume baztertuek, sozialki baztertuak dauden pertsonak eta minusbaliatuek jasaten dituzten desberdintasun sozial lazgarrienak zuzentzeko.

7)- Gizartea eta ekonomia garatzeko politikak, azpiegiturak eta zerbitzu publikoak bultzatzea, lurraldeen arteko desorekak zuzentzeko, herritar guztientzako aukera berdintasuna bermatzeko -bizi diren geografia eremua edozein izanik ere-, hori guztia garapen iraunkorrean oinarriturik.

8)- Demokrazian sakontzea: batetik, gizarteak bizitza politikoan parte hartzeko bideak hobetzeko eta, bestetik, sistema demokratikoaren beraren zilegitasuna eta kalitatea indartzeko; era berean, gizarteak era iraunkorrean parte hartzeko formulak entseatzeko, esaterako, gizarte partaidetzarako kontseiluak, aurrekontu partehartzaileak edo beste, eta, horiekin batera, erabakietan zuzenean parte hartzeko lanabesak, herri kontsulten edo erreferendumen bidez, eta hautesleek hautetsiak kontrolatzea.

9)- Egiazki iraunkorra eta etorkizuneko belaunaldiekiko nahiz munduko herri pobretuekiko solidarioa izanen den giza garapenaren aldeko apustua.

10)- Nafarroako abertzale, ezkertiar, aurrerazale eta euskaltzaleen gizarte babesa ahalik eta gehien aprobetxatzea, indarrak batu eta sinergiak bilatzearen bidez, eta printzipio programatiko hauek aintzat hartzen ditugun taldeok elkarrekin koalizioan instituzio gehiagotan tokia izatea, gaur egun ez baitugu ordezkartzarik proiektu berri, integratzaile, kohesio emaile eta solidarioa bultzatzeko.

11)- Nafar eskuindarrek egun gobernatzen duten instituzioetan alternatiba sortzea. UPN-CDNri edo ideologikoki antzekoak diren udal hauteskunde taldeei alternatiba izateko, gehienetan gobernu hitzarmena egin beharko da PSNrekin eta ezkerreko beste indar batzuekin. Bestalde, beharrezkoa da konpromiso tinkoa gobernu aurrerazaleei sostengua emateko, betiere bakoitzaren ordezkartzarekiko errespetua aintzat hartuz, eta, aldi berean, lehentasuna eman behar zaio aldaketarako dagoen premia gorriari, desadostasun politikoen gainetik.

Nafarroa, 2006ko ekainaren 21a